



BEASAINGO UDALERRIKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2016ko irailaren 20an, Diputatuen Kontseiluak onartu zuen udalerrri honi dagozkion hiri-izaerako ondasun higiezin lurzoruaren eta eraikuntzen balioen ponentziaren berrikuspena. Ponentzia horretan oinarrituta lortu ziren hiri-izaerako ondasun higiezin katastro-balio berriak eta horiek 2017ko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean.

Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen duenez, katastroko balioak Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizioz edo dagozkion udalak eskatuta. Aldaketa horiek gauzatuko dira baldin eta hirigintza-plangintzak edo beste inguruabar batzuek agerian uzten badute funtsezko desberdintasunak daudela udalerrian dauden ondasun higiezin katastroko balioen eta merkatu-balioen artean, edo udalerriko zonaren batean edo batzuetan dauden ondasun higiezin merkatu-balioen artean.

Balio Ponentzia onartu zenetik, udalerriko hirigintza-plangintzan lurzoruaren izaerari eragiten dioten aldaketak egin dira, eta horiek, lurzoruaren eraginpeko ondasunen merkatu-balioan eragina dute.

Horregatik guztiagatik, aldatu egin da udalerrri honetako hiri-izaerako ondasun higiezin lurzoruaren eta eraikuntzen balio ponentzia.

XEDEA

Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldatu egin da udalerriko Balore Ponentzia, honako inguruabar honen ondorioz:

- **Fleming 34. Areako eta Arizmendi I Sektoreari buruzko plangintzako Arau Subsidiarioen berrikustea eta egokitzearen Testu Bateratuaren aldaketa puntuala, Udalbatzak 2023ko maiatzaren 18an behin betikoz onartua (GAO 2023-06-01)**



EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantziaren ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Lurzoru hiritarraren mugaketa aldatzen da.**
- 2.- 111 eta 112 zona katastralen mugak aldatzen dira.**
- 3.- 604 zona ezabatzen da.**

I ERANSKINA

Hirilurraren mugatze planoak.

II ERANSKINA

Zona katastralen planoak.